


Populazioaren hezkuntza

Hamar urteko eta hortik gorako biztanleak Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2016/01/01. %

Populazioaren hezkuntza-maila handitu egin da azkeneko 30 urteetan, 1986 eta 2016 artean; hain zuzen ere, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta haurren eskolatzeko goiztiarra sendotu ziren denbora-tartean.

Hezkuntza-mailarik apalenean pertsona helduak ageri dira. 2016an emakumeen % 35ek eta gizonezkoen % 31k ez zeukaten lehen mailako ikasketarik. Emakume horien erdiek baino gehiagok 64 urte dituzte. Era berean, hamar emakume analfabetotatik zortzik 65 urte edo gehiago ditu.

2016an emakumeen %17,8k eta gizonezkoen %16,7k unibertsitateko ikasketak zituzten. Goi-mailako eta erdi- eta goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen kasuan, gehienek 30 eta 55 urte artean zituzten (% 71k eta % 65ek, hurrenez hurren).



Populazioaren hezkuntza


20 eta 64 urte bitarteko populazio ez-ikaslea Euskal Autonomia Erkidegoan, egindako ikasketen, adinaren eta sexuaren arabera. 2016.

Egindako ikasketak

Ikasle ez diren 10 urtetik gorako biztanleak (ikasketak amaitu edo utzi zituena) 868.161 emakume eta 801.224 gizon ziren 2016an.

Goi -eta erdi- mailako ikasketak dituzten 20 eta 64 urte bitarteko emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino 2016an (55.632 emakume gehiago).

Egindako lanbide-ikasketen artean, gizonezkoak gehiago dira emakumeak baino edozein adin-tartetan, ia 40.000 gizon gehiago. Era berean, bigarren mailako ikasketak dituzten gizonezkoak ere gehiago dira 45 urtez azpiko adinetan.



Ikasle-populazioa


Euskal Autonomia Erkidegoko eskolatze-tasa, adinaren (txandakako urteak) eta irakaskuntza-mailaren (%) arabera. 2015/16.

Eskolatze-tasak

Lehen hezkuntzako eskolatze-tasek kolektiboaren %100 hartzen dute ia: 2015/2016 ikasturtean 128.198 matrikulatze izan ziren. Halaber, 0 eta 4 urte bitartean haur-hezkuntzako matrikulak 93.318 izan ziren.

Hamabost urtetik aurrera, eskolatze-tasa apur bat jaisten hasten da eta trebakuntza-ibilbidea dibertsifikatu egiten da.

Lehendabiziko trebakuntza-ibilbideak emakumeen eta gizonen arteko aldeak erakutsiko ditu, genero-estereotipoekin bat eta lan-itxaropen desberdinekin. Hamar emakumetik seik batxilergoa egitea erabakitzen du; hamar gizonetik seik, berriz, lanbide-heziketaren aldeko hautua egiten du.



Eustat. Eskola-jardueraren estatistika.

Ikasle-populazioa


Eskola-uzte goiztiarraren tasa 18 eta 24 urte bitarteko populazioaren artean, Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2000-2014. %

Eskola-uzte goiztiarra

Tasek bigarren hezkuntza osatu gabe ikasteari utzi ziotenei egiten diete erreferentzia (nahiz eta lehen etapa amaitu, ez zuten jarraitu ikasten).

Eskola-uzte goiztiarraren tasa handiagoa izan da gizonetan eta hala izaten jarraitzen du (%7,7) emakumeen tasaren aldean (%6,6), 2014ko datuen arabera, nahiz eta gizonezkoen tasa ere ehuneko 10 puntu inguru jaitsi den 2000 eta 2014 bitartean.

Euskadiko emakumeen eskola-uzte goiztiarra 2014an (%6,6) Europako emakumezkoen tasaren azpitik dago (%9,5 da European), baita Espainiakoaren (%18) eta Frantziakoaren (%7,7) azpitik ere.



Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko estatistika



Ikasle-populazioa


Goi-mailako lanbide-heziketan matrikulatutako ikasleak eta familia profesionala (150 emakume matrikulatu baino gehiagorekin), adinaren arabera. 2015-16. Ranking.

Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak

Lanbide-adarraren barruko trebakuntza-aukerak aldeak erakusten ditu emakumeen eta gizonen artean 2015-2016 ikasturtean, bai erdi-mailako graduak, bai goi-mailakoan.

Erdi-mailako graduak, honako hauek dira emakumezkoek aukeratzen dituzten lanbide-adarrak, gizonazkoek apenas hautatzen dituztenak: osasungintza, irudi pertsonala eta zerbitzu soziokulturalak eta komunitarioak. Era berean, badira bi familia gizonazkoek zein emakumezkoek maiz aukeratzen dituztenak: administrazioa eta kudeaketa, eta ostalaritza eta turismoa.

Goi-mailan, aukerak errepikatu egiten dira, beste ordena batean bada ere: zerbitzu soziokulturalak eta komunitarioak dira nagusi emakumeen kasuan. Emakumeek, neurri txikiagoan bada ere, gizonazkoen presentzia handia duten adar batzuk ere aukeratzen dituzte, hala nola fabrikazio mekanikoa, informatika eta komunikazioak, eta jarduera fisikoak eta kirolak.



Eustat. Eskola-jardueraren estatistika.




Ikasle-populazioa

Euskal Herriko Unibertsitateko sarbide-probak gainditutako ikasleak, lehen aukerako titulazioaren eta sexuaren arabera (120 emakume edo gehiago izena emanda dauden kasuetan). 2016. Ranking.

Unibertsitate aurreko ikasleak

Selektibitatea gainditu ostean unibertsitate-ikasketak aukeratzean ere ageri dira aldeak emakumeen eta gizonen artean.

Emakumeek apenas hautatzen dute ingeniaritza lehen aukeretan; oro har, nahiago izaten dituzte hezkuntza-zientzia eta osasunaren zientziak, ondoren gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak, 2016ko datuen arabera.



Eustat. Unibertsitatearen estatistika.



Ikasle-populazioa


EAEko unibertsitateetan ikasketak amaitutako ikasleak, adarraren arabera sailkatuta, eta ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera bereizita. 2015/16. %

Unibertsitate-populazioa

Unibertsitate-ikasleen %53 emakumezkoak ziren 2015/2016 ikasturtean.

Graduko ikasleak dira unibertsitate-ikasleen %83,5. Graduatutako hamar emakumetik bostek gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak egin zituen, 1,8k osasun-zientziak eta 1,6k ingeniariak; bestalde, hamar gizonetik lauk ingeniariak egin zuen eta beste lauk, berriz, gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak.

Doktoregoa egindako emakumeen batez besteko adina 37,5 urte izan zen 2016an, eta gizonezkoena, berriz, 39,2.



(*) Diplomatura, arkitektura edota ingeniari tekniko. Lizentziatura, arkitektura edota ingeniari.

Laburpena

Emakumeen eta gizonen hezkuntza-maila handitu egin da azken urteetan, eta emakume gazteek hezkuntza-maila handiagoa dute nagusiagoek baino, azken horiek maiz lehen-mailako ikasketak baitituzte.

Gaur egun, unibertsitate-ikasketak amaituta dauzkaten emakumeak gehiago dira gizonetzkoak baino, eta alderantziz lanbide-ikasketak amaituta daukatenen kasuan, gehiago dira gizonetzkoak emakumezkoak baino. Emakumeen eta gizonen arteko trebakuntza-hautua hasieratik nabarmentzen da.

Eskola-uzte goiztiarra handiagoa izan da gizonetan emakumeetan baino, eta hala izaten jarraitzen du. DBHko, batxilergoko eta unibertsitate-ikasketetako graduatze-tasak handiagoak dira emakumeetan; lanbide-heziketako graduatze-tasak, berriz, ugariagoak dira gizonen artean bi zikloetan. Beste horrenbeste diplomatura eta ingeniaritza teknikoetan ere, gizonetzkoetan handiagoa baita.

Jakintzaren esparruak ere ageri du alderik.

Honako hauek dira emakumezkoek aukeratzen dituzten lanbide-adarrak, gizonetzkoek apenas hautatzen dituztenak: osasungintza, irudi pertsonala

eta zerbitzu soziokulturalak eta komunitarioak. Era berean, badira bi lanbide-familia gizonetzkoek zein emakumezkoek maiz aukeratzen dituztenak: administrazioa eta kudeaketa, eta ostalaritza eta turismoa.

Unibertsitate-irakaskuntzari dagokionez, emakumeek, selektibitatearen ostean, apenas hautatzen dute ingeniaritza lehen aukeretan; oro har, nahiago izaten dituzte hezkuntza-zientziak eta osasunaren zientziak, eta, ondoren, gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak, 2016ko datuen arabera.

Unibertsitate-gradua eskuratutako hamar emakumetik zortzik gizarte-zientzietako edo zientzia juridikoetako ikasketak egin zituen. Unibertsitate-ikasketak egindako hamar gizonetik lauk, berriz, ingeniaritza egin zuen, eta beste lauk, ostera, gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak.



Taulak /elementu grafikoak iturria

Hamar urteko eta hortik gorako biztanleak Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2016/01/01. %. 20 eta 64 urte bitarteko populazio ez-ikaslea Euskal Autonomia Erkidegoan, egindako ikasketen, adinaren eta sexuaren arabera. 2016.

Euskal Autonomia Erkidegoko eskolatzeko-tasa, adinaren (txandakako urteak) eta irakaskuntza-mailaren (%) arabera. 2015/16.

Eskola-uzte goiztiarraren tasa 18 eta 24 urte bitarteko populazioaren artean, Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2000-2014. %.

Goi-mailako lanbide-heziketan matrikulatutako ikasleak eta familia profesionala (150 emakume matrikulatu baino gehiagorekin), adinaren arabera. 2015-16.

Euskal Herriko Unibertsitateko sarbide-probak gainditutako ikasleak, lehen aukerako titulazioaren eta sexuaren arabera (120 emakume edo gehiago izena emanda dauden kasuetan). 2016.

EAEko unibertsitateetan ikasketak amaitutako ikasleak, adarraren arabera sailkatuta, eta ikasketen-mailaren eta sexuaren arabera bereizita. 2015/16. %.

Eustat. Hezkuntzaren udal-estatistika

Eustat. Hezkuntzaren udal-estatistika

Eustat. Eskola-jardueraren estatistika.

Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko estatistika

Eustat. Eskola-jardueraren estatistika.

Eustat. Unibertsitatearen estatistika.

Eustat. Unibertsitatearen estatistika.